# BERRIGARA

130. zenbakia — JARDUN ELKARTEA, Bergara — 1993, abenduak 10

**UDAL ORDEZKARIAK MINTZO: EAko ORDEZKARIAK**

**ESKAPARATE LEHIAKETA MARTXAN**

**KIROLAK**

**KIROL TALDEEI BANATZEN ZAIZKIEN DIRULAGUNTZAK**



## Lanpostuak sortzeko programa

**Erlojutegia** **Bitxitegia**

LAISTER

**iRUDi**

ZABALIK

Helbide berria: Ibargarai 2 (Frontoi ondoan), BERGARA

**ARRASATE ERDIALDEAN**, *Deba Garaiko merkatal gunerik haundiena aurkituko duzu. Hemen zure erosketek izen propioa izango dute.*

# ibai-arte

ibai-arte

ARRASATE ERDIALDEKO MERKATAL
ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

**paseatuz erostea arte bihurtu dugu**

***BISITA GAITZAZU!!***

BERRIGARA

**Argitaratzailea:**
*Jardun* Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19
**Berrigara**
**Tfnoa. eta Faxa:** 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala.

**Zuzendaria:**
Gorka Elorza.

**Erredakzioa**
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkoroberezibar.

**Maketazioa:**
Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

**Publizitatea eta harpidetzak:**
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza. ☎ 76 03 97

**Erredakzio-kontseilua:**
Iñaki Eraña eta Alex Labaien.

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, Juan Martin Elexpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Miren Goenaga.

**Argazki laborategia:**
Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

**Komikia eta marrazkiak:** Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**Banaketa :** Txantxangorri Taldea.

**Copyright:**
BERRIGARA

**Tirada:** 3.500 ale.

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA**k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailaren laguntza jaso du

# PROTAGONISTAK



**Ama Birjinaren zubia** izan dela eta, herritarrak bost egunetako oporralditxoa ondo aprobetxatu dute. Ahal izan duenak behinik behin, batzuk lanaren beharrez beste batzuk krisiak gogor jotzen duelako ez baitute irtetzeko aukerarik izan.

Kalean normalean baino jende gutxiago ibili da. Hala ere egun hauetan Bergaran gertatu denaren kronikatxoa egitekotan ezin ahaztu astelehenean Gaztetxekoek San Martin Plazan egin zuten herri bazkaria (Musikari naparmexikano eta guzti), asteartean Hemen Gaude kolektiboaren Pakearen Aldeko Sugarra izan genuela eta asteazkenean Lasai Toki elkarteak herriko jubilatuei eskaini zien luntxa.

## Huajoloteak, Pakearen Aldeko Sugarra eta Jubilatuen luntxa

# ITURRI ONETIK

## Bi urtekoentzako heziketa

Bergarako Aranzadi Ikastolak bi urteko haurrentzako gela bat jarriko du martxan urtarriletik aurrera. Dagoeneko 18-19 bat gurasoren eskariak jaso dituzte eta Ikastolaren asmoa Hezkuntza Erregelatuaren barruan dagoen etapa bat betetzea da. San Martin Ikastetxea eta Mariaren Lagundian dagoeneko marxan dira era honetako gelak. Aranzadiko Zuzendari pedagojikoa datorren astean bilduko da gurasoekin ordutegia eta beste gai batzuk aztertzeko.

# ESAN DUTE

"Helduen Txotxongiloen mundua ia berria da eta gure helburua kalitatezko lanak egitea litzateke. Hortarako etengabeko formakuntza prozesuan murgilduta gaude, buru-belarri sartuta gaude istorio honetan. Eta bestalde beti ez gaude kreazio prozesu batean. Tarte horiek esperimentatzeko aprobetxatzen dugu, teknika berriak etab... Beste talde batzuk ere eskatu izan dizkigute guk landutako panpinak. Esan behar da gainera asko kostatzen dela *lagun* bihurtu zaizkizun panpin horiek saltzea".

**ALBERTO IÑURRIETA**
Taun-Tauneko kidea
EUSKADI IRRATIA

●

"Gero eta futbol fitxa gutxiago egiten dira. Gaur egun oso zaila da futbolari profesionala izatea".

**ASIER GARITANO**
Futbolaria
ARIZ-ONDO

●

ARDATZA
Brikolaketa
Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
- Apalak
- Kajoiak

HARATEGIA - URDAITEGIA
Sebastian Imaz
Bildotsa, txahala eta oilazkoak
Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA



**EN LA LINEA DE FUEGO**
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.



**DE VUELTA A CASA, UN VIAJE INCREIBLE**
Igandea: 11.30.



**UNA LLAMA EN MI CORAZON**
Osteguna: 19.30.

## Zinea

▼▼ Estatubatuarrek psikosia dute beren presidenteekin. Hemen ere izango da presidentea hiltzeko prest azalduko den pertsonaia (**John Malkovich**). Eta trajedia ezabatzeko bere garaian, Kennedyrekin, huts egin zuen ajentea (**Clint Eastwood**). Orduko emaitza ikusita... auskalo!!

▼▼ **Walt Disney**ren filmeak guztiz egokiak dira matinaletarako. Bi txakur eta katu batek bere jabeen atzetik egiten duten bidaia kontatzen da honetan. Egoera hunkigarriak eta barregarriak tartekatuz, primeran pasatzeko aukera.

▼▼ **Alain Tanner** zinegilearen filme hau telebistan bota zuten orain urte batzu. Zuribeltzean errodatuta, amodioaren bila dabilen emakume baten (**Myriam Mezieres** aktoresa eta gidoigilea) istorioa kontatzen zaigu.

## Deiak

▼ **Dani Santos** argazkilari bergararraren erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Diapositiba emanaldia** larunbatean 19.00etan Antzuolako Gaztetxean..

▼ **Diru erakusketa** Kultur Etxean igandera arte. Astebukaeran 12etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara.

▼ **Bertso jaialdia** Jubilatuetan astelehenean, hilak 13, Santa Luzia eguna. Besteak beste, Bergarako Bertso Eskolakoak eta Egileor izango dira. Trikitilariak alaituta. Arra2tsaldeko 5.30etan.

▼ **Odol ematea** asteazkenean, hilak 15, 19.00etan Seminarioko baxuetan.

## Ogia

▼ **Igandea 12:** Ogizun.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Larunbata 11:** Guallar.
▼ **Igandea 12:** Guallar.
▼ **Astelehena 13:** Estella.
▼ **Asteartea 14:** Mozos.
▼ **Asteazkena 15:** Camacho.
▼ **Osteguna 16:** Puy/Español.
▼ **Ostirala 17:** Guallar/Irizar.

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

FANCY
FANCY
GAZTEEN MODA!
Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24



Maria Jesus Ugaldek zuzentzen duen Akordeoi orkesta ikusteko aukera ostiralean.

▼▼ **Musika Eskolako Taldeen kontzertua** iragarri da ostiral honetan 19.30etan Novedades Aretoan. Akordeoi orkesta, Tipleen abesbatza, Orkesta txikia, Banda gaztea eta Orkesta Sinfonikoak kontzertua eskainiko dute Udazken Kulturalaren programaren barruan antolatu den jaialdian.

▼▼ **Egur-Lur** kolektiboko Tere Guenetxea (keramista) eta Zuriñe Gredilla (egur lanketa) artistek erakusketa prestatu dute Pol-Poleko erakusketa aretoan. Datorren ostiralean, hilak 17, hasi eta igandera arte ikusgai izango da. Bestalde, Kirol Argazki Lehiaketara aurkeztutako lan interesgarrienak bilduko dituen argazki erakusketa zabalduko da astelehen honetan, hilak 13, Kultur Etxeko erakusketa aretoan.



# KIROL
## KARTELDEGIA

### PELOTA

**BERGARA-AZPEITIA**
Jubenilak binaka. Kluben arteko ligako finalaurreko itzulera partidua. Ostirala 22.00etan, Udal Pelotalekuan.

### FUTBITOA

**• LARUNBATA •**

**Barruan**
09.00: SHAKTALE-EZINLEKIKE
10.00: NAIKARI HOOL-ERROTAGAIN
16.00: OH ZEREZOS-GUADALEST
17.00: BAR CANALEJAS-K. POTRUAK
18.00: TOKIEDER-BILDURBAREK LAM
19.00: OS JARDINEIROS-SOROPOTR.

**Kanpoan**
09.00: LABEGARAIETA-PATA NEGRA
10.00: MATALASCAÑAS-TXIPIRON
11.00: REVIENTA-EGOKI
12.00: EUSEBIO II-IGANDEKOAK
16.00: ARTU ZAMAK-ETXAGI
17.00: KK USAIN-KALIMOTXO
18.00: PAOK DE S. JUAN-AMOZKIBAR

**• IGANDEA •**

**Barruan**
09.00: USOA-AKORT ARIZNOA
10.00: ANGIOZAR-MADURA
11.00: KRITERIUM-ARLOTEAK
12.00: OGIZUN-MONGATXURRA
13.00: LATXUPETA-KIROLZALEAK
16.00: KRAI-ARKUPE
17.00: ERI-UFALA
18.00: ALDOKA MALDOKA-ARI ARI
19.00: OZAETA-ERDI BITERRAK

SANTOS IRRATI-TB
ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA
Zuek®
Sukalde altzarien erakusketa
Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

Beheko Taberna
Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## Kartoi eta paperen bilketa zikina

Ez dakit kartoiak eta papera biltzeko jarritako kontenedoreak batzearen ardura norena den baina azkenaldian guztiak gainezka ikusten ditut. Nere etxe parean daukatena egoera penagarrian egoten da gehienetan eta benetan asko zatartzen du ingurua. Jendeak, gainezka egonda ere, paperak eramaten jarraitzen du eta, euria egitekotan, haura ez dago konpontzerik. Kontu haundiagoz ibili behar da horrelako gauzekin. Honelako kanpaina bat martxan jartzen bada, jarraipena eman behar zaio, horren kontrola etengabe eraman eta herritarrei erakutsi agindutakoa formalidadez betetzen dela, ez jendearen eta talde ekolojikoen aurrean ondo gelditzearren.

Horrez aparte, eta orainarteko formularen emaitza kaskarrak ikusita, ez dakit egokiagoa litzatekeen astean behin edo (altzari zaharrekin gertatzen den modura) kamioi bat pasatzea horrelako materialak jasotzeko. Guztiok ezagutzen dugu elkar, eta badakigu 10 metro gutxiago ibiltzeagatik, kontenedoretara eraman beharrean, horrelako materiale errezikableak zaborretara erreserbatutako tokietan uzten ditugula. Uste dut gauzak gehiegi erreztu behar izaten zaizkigula honelako kanpainetan parte hartzeko eta arazoaz kontzientziatzeko. Aipatutako neurriarekin jende gehiagok hartuko luke parte eta askoz ere arrakastatsuagoa gertatu daiteke honelako materialen batzea. Guztion onerako izango dela dudarik ez dago eta kostu aldetik ere merkeagoa izan liteke. Azterketa bat egin eta bi sistemen (edo gehiagoren) aurrekontuak eta posibilitateak konparatzea baino ez da egin behar.

*Juanjo Alberdi*

## BERRIGARAKO GUTUNAK

**Gutunak sailera bidalitako kartak identifikatuta bidali beharko dira BERRIGARAko Erredakziora eta izen eta abizenarekin sinatuta argitaratuko dira.**
**Talde bat baldin bada idazlea, taldearen izena eta partaide baten izen eta abizenak bidali beharko dira.**
**Bestalde, karten luzera 30 lerro baino gutxiagokoa izatea eta, ahal izanez gero behintzat, makinaz idatzita bidaltzea eskatzen da.**

*BERRIGARAko Erredakzio Kontseilua*

## Tiiira ba!

Josu Okina



# Udalak Olaso Dorrea Fundazioarekin sinatutako hitzarmena onartu du Udalbatzak

**Bergarako Udala eta Olaso Dorrea Sorrerakundeak konbenio bat sinatu dute Udaletxeko lanen ondorioz Olaso Dorreak jasan zituen kalteei aurre egiteko elkarrekin lan egiteko.**



Udaletxeko obrek eraginda, Olaso Dorreko paretak brintzatu egin ziren joan zen uztailean.

Sinatu den konbenioaren arabera, epaitegietan sartu zuen kereila erretiratzeko borondatea agertu du Olaso Dorrea Sorrerakundeak.

Bestalde Udaletxeko obren inguruan Ina Azpiazu arkitektoak eginiko ikerketak tekniko frantses batzuen oneritzia jaso ondoren, obrekin aurrera jarraitzeko borondatea agertu du Udalak.

Honenbestez, Olaso Dorreak jasandako kalteak zenbaterainokoak izan diren baloratuko dituen arkitekto neutral bat aukeratzea erabaki dute bi aldeek.

Olaso Dorrea Sorrerakundearekin Udalak sinatu duen hitzarmena ostegunean eginiko Ezohizko Osoko Bilkuran onartu zuen Udalbatzak. EAJ, PSE-EE eta HBk baiezko botoa eman zuten eta EAk, berriz, ezezkoa.

### Kalteak

Gogora dezagun Olaso Dorreko ipar fatxada 1.5 zm.tan behera egin eta 2 zm.tan okertu egin zela joan zen uztailean Udaletxeko obren eraginez. Dorreko hormak eusteko langileak mikropiloteak sartzen ari zirela ur boltsa bat agertu zen.

Ondorioz, dorreko paretak brintzatu egin ziren eta Olaso Dorrea Sorrerakundeak bi kereila sartu zituen epaitegietan Udalaren kontra. Antza denez, gauzak konpondu dira eta orduko hika-mikak albo batera utzi dira bi aldeek sinatutako hitzarmenarekin.

## "Hemen Gaude" Bergaran



Ertzaintzaren "Hemen Gaude" kolektiboak bultzatutako Pakearen Aldeko Sugarra Bergarara iritsi da aste honetan. Joseba Goikoetxea Ertzaintzako sarjentoaren hilketaren ondoren sortutako kolektiboaren sugarra, Ertzaintzaren komisaldegia duten Euskal Autonomi Elkarteko herri guztietatik zehar ibili dabil eta asteartean hiru ordutako parada egin zuen Bergaran. Arratsaldeko 4retan jarri zen San Martin Plazan, Seminario aurrekaldean, eta 7ak arte egon zen. Hainbat herritarrek (tartean Udal agintariek) beren sinadura bota zuen "Hemen Gaude" koletiboak ipinitako liburuan. Pakearen sugarrari agur esan aurretik bost minutuko ixilunea gorde zuten Plazan bildutakoek.

## Egunkariko Tonbola

Zabalik da dagoeneko Egunkariko Tonbola. Azken bi urtetan egin den moduan aurten ere herriko 30 taberna eta jatetxetan erosi al izango dira boletoak eta sariak Aranzadi Ikastolan, Kilometroetako denda jarri zen tokian, jaso al izango dira hilaren 30a bitartean arratsaldeko 6etatik 8etara.

## Mendiko eta skiko aseguroak Pol-Polen

Mendiko eta skiko aseguroak tramitatzea nahi dutenei, Pol-Pol mendizale taldeko bulegora lehenbailehen hurbil daitezela gomendatzen zaie. Bulegoko ordutegia, astelehenetik ostegunera, 19.30etatik 20.30etara.

## Pelota Kiniela

Asmatzaile bakarra dugu joan zen asteko Pelota Kinielan. Unanue eta Errasti / Lejardi eta Zezeaga partiduarekin antolatu zen kiniela eta emaitza 22-8 (11-4). 26.460 pzta. asmatzaile-arentzat. Aste honetakoa, Retegi eta Belokik Lejardi eta Zezeagaren kontra larunbatean Gasteizen jokatuko den partiduarekin antolatuko da.



Lehiaketara aurkeztu diren dendak prest dituzte dagoeneko euren eskaparateak.

# Eskaparate Lehiaketa martxan

***20 dendak eman dute izena. Hilaren 24rako irabazleak.***

Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatu duen Eskaparate Lehiaketako hirugarren edizio honetara, herriko 20 denda aurkeztu dira eta oinarrietan agertzen denaren arabera, joan zen martitzenerako eskaparate guztiak prest egon behar ziren. Erakustaldiak hilaren 19ra arte iraungo du eta epaimahaiak 24rako emango ditu jakitera saritutakoen izenak.

Hiru sari emango dira: lehen saria, 100.000 pzta; 2.a, 50.000 pzta eta 3.a 25.000 pzta. Hauek ematerakoan baloratuko dena, berriz, imajinazioa, orijinaltasuna, iragarpenaren eraginkortasuna eta kalitatea. Epaimahaiak hala erabaki ezkero, sariren bat (edo guztiak) eman gabe uzteko eskubidea ere badauka eta sari bakoitza denda bakarrari emango zaio.

Orain arte antolatu diren bi edizioetan, Subijai arropa denda (1991) eta Alga lurrindegia (1992) izan dira sari nagusia irabazi duten dendak. Urtetik-urtera partehartzaileen kopurua gehituz joan da.

ZUBIETA
elektragintza
✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

IRRINTZI
Kafetegia
Kafea da gure berezitasuna
☎ 76 20 50

BOLU GIMNASIOA




ESKEINTZA

Bazkide berriek opari eder bat jasoko dute: Kanarietan, bost izarretako aparthotel batean, bi lagunentzat astebeteko egonaldia doan.

ZERBITZUAK:
• 2 sauna.
• Hidromasajerako 2 bainontzi.
• Masajea.
• Solariuma.
• Estetika.
• Taberna.

EGIZU GUREKIN:
• Aerobica (130 m2ko aretoa).
• Gimnasia (150 m2ko aretoa).
• Muskulazioa (160 m2).
• Karatea (150 m2).
• Squash eta raquetballa (2 kantxa).

KUOTA: Hilabetekoa: 4.600 + B.E.Z. Urtekoa: 37.000 + B.E.Z.
ARANERREKA, ☎ 76 51 20 BERGARA



Javier Zendoia, Alvaro Esparza, Ines Etxeberria eta Xabier Legorburu.

# Eguneko egonaldietarako zerbitzua

***65 urtetik gorakoei bidali zaie zerbitzuari buruzko informazioa***

Bergarako Jubilatuetan martxan jarriko den Eguneko Egonaldietarako Zerbitzuari buruzko azalpenak eman zituzten joan zen ostegunean Javier Cendoya eta Alvaro Esparza Gizarte Ongizateko zinegotziek eta Ines Etxeberria eta Xabier Legorburu Udaleko Gizarte Laguntzaileek.

Udalak eta Gipuzkoako Diputazioak martxan jarri nahi duten zerbitzua menpekotasun mailaren bat izan eta beren familiakoekin bizi diren pertsonei zuzendua dago eta helburua, zerbitzua erabiliko duten pertsonen autonomia maila areagotzea da. Zerbitzuan parte hartzen duenak goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara jubilatuen etxean egoteko aukera izango du bertan diren zerbitzu guztiak jasoaz: mediku eta praktikantearen zaintza, Terapia Okupazionala...

Eguneko Egonaldietarako Zerbitzuaren kostuari aurre egiteko onuradun bakoitzak bere dirusarreraren % 40a ordaindu beharko du.

## Bertso Txapelketarako autobusak

Bertso Txapelketako finalerako (abenduak 19) autobusa antolatu du JARDUNek. Goizeko 9.15etan Beheko Estaziotik irtengo da. Autobusak 800 pzta., bazkariak 1.900 eta sarrerak 2.000 pzta. balio dute eta izena emateko azken eguna abenduaren 16a. (Jardun elkartea 76 08 19).

## Bergararrak nagusi Argazki Rallyan

Azaroaren 21ean Bergaran jokatu zen Argazki Rallyan Benito Canterok jaso du argazki multzorik onenaren lehen saria eta Jose Luis Feok bigarrena. Hirugarren saria Roberto Madariaga zaldibartarrak irabazi du, herriko argazki multzoirik onenarena Agustin Gurrutxagak eta gazte saria, azkenik, Maitane Laskurainek. Honenbestez, Ermua, Elorrio, Zaldibar, Eibar, Soraluze eta Bergaran antolatzen diren rallyekin osatzen den "Argazki bidez" zirkuitoari amaiera eman zaio eta Benito Cantero eta Jose Luis Feok 2. eta 5. postua lortu dute.

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak
Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara
ANGIOZAR ☎ 76 55 70

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

# dantza ikastaroa II

**TANGOA, ROCK & ROLLA, MAMBOA ...**

**noiz:**
Urtarrilaren 15etik otsailaren 26ra.

**ordua:**
Larunbatetan 16.30etatik 19.00etara.

**non:**
Batxilergo Institutoko gimnasioan.

**izen ematea:**
Abenduaren 24a baino lehen JARDUNen (76 08 19).

**prezioa:**
- Bazkide direnentzat: 4.500 pzta.
- Ez direnentzat: 5.000 pzta.

# sukaldaritza ikastaroa

**NOLA GERTATU MENU BAT**
**(etxetik kanpo pisuetan bizi diren ikasle gazteentzat aproposa)**

**noiz:**
Abenduaren 27tik 30era.

**ordua:**
11.00etatik 12.30etara.

**non:**
Alargunen elkartean.

**izen ematea:**
Abenduaren 23a baino lehen JARDUNen (76 08 19).

**prezioa:**
- Bazkide direnentzat: 4.500 pzta.
- Ez direnentzat: 5.000 pzta.

**ANTOLATZAILEA** Jardun

**LAGUNTZAILEAK**

# Arrisku Soldata

## enpresa berriak sortzeko programa

*Lau hilabetetan programan parte hartzen dutenei soldata ordaintzen zaie.*

**Azken boladan gure inguruan krisi ekonomikoa gogor astintzen ari da eta asko dira langabezian aurkitzen direnak. Arazo horri irtenbideak topatzeko alde guztietatik daude ideia eta asmoak, eta horien artean Arrisku Soldataren proiektua. Horren bitartez Diputazio eta Udalaren laguntzarekin langabetuak enpresa propioak egiteko aukera dute. Gure herrian, proiektuak hiru urte daramatza funtzionamenduan eta dagoeneko lau enpresa berri sortzeko balio izan du.**

Arrisku Soldata programara proiektuak aurkezteko azken eguna irailaren 30a izaten da eta bertara bakoitzak egin nahi duen enpresa proektu eredua aurkeztu beharko du. Ondoren Udaleko alderdi politikoetako ordezkariek, Diputazioko beste batek, Consulting enpresako kide batek eta Mankomunitateko eta Udaleko lan teknikariak proiekturik onena zein den erabakitzeko komisio bat eratzen dute.

Aukeratutako proiektuak beti ere, bi izaten dira, eta lau hilabetetan zehar laguntza jaso dutenek euren enpresaren inguruko estudioa egin beharko dute. Horretarako aholkularitzan aditua den enpresa baten laguntza izaten dute eta epe hori pasa ondoren 6 hilabete dute enpresa eratzeko. Marije Unamunok, Udaleko teknikariak adierazi digunez *"proiektu bat aukeratzeko orduan aspektu ezberdinak hartzen dira kontutan. Horien artean ideiaren promotorea zein den, ideiaren biabilitatea, merkatuaren azterketa, aurkeztutako proiektuak inguruan izan dezakeen garapena e.a...".*

Aurtengo Arrisku Soldata proiektura 6 ideia desberdin aurkeztu dira. Bidrieria tailerra eratzeko bi proiektu, Hizkuntz akademia kooperatiba



Juan Carlos Gallastegi orain dela urtebete inguru hasi zen gas instalakuntzan lanean, berak sortutako enpresan.



Juan Carlos Gallastegi eta Fernando Albeniz Gas Laneko bulegoan.

bat, Mikro prozesadoreen enpresa bat, Publizitate Agentzia bat eta azkenik, Artesania lantzeko Aula tailer bat izan dira aurtengo hautagaiak. Horien artetik, aurrez aipatutako erizpideei jarraituz, bidrieria tailerra eta artesania lantzeko aula tailerra izan dira aukeratuak. *"Aurkeztutako proiektuen artean biabilitate eta aurrera egiteko aukerarik handienak dituztenak dira. Bidrieriari dagokionez ideaaren bultzatzaileak bere lokala du, gainera inbertsio aldetik ez du diru askorik behar eta ideiaren bultzatzaileak badu esperientziarik lan honetan"* diosku Unamunok.

## Esperientzia baikorra

Aurtengo arrisku soldataren laguntza Artesania lantzeko aula tailer eta Bidrieria enpresa batek jaso dute. Pasa den urtean, aldiz, Turlan turismoa eta harreman publikoak lantzeko enpresak eta Gas Lan, gas instalakuntzak egiten dituen enpresak jaso zuten laguntza. Juan Carlos Gallastegi bergararrak jaso zuen Gas Lan aurrera ateratzeko laguntza eta hasera batean lanean bakarrik hasi bazen ere, orain Fernando Albeniz kontratatu du.

**Udalak soldata ordaindu eta aholkularitza enpresa baten laguntza eskaintzen du**

Gallastegik bere enpresa propioa sortu baino lehen Arrasateko gas instalakuntzan dabilen beste enpresa batean ari zen lanean. *"Nire lehen asmoa, nirekin lanean ari zen beste batekin enpresa eratzea zen. Baina bera atzera bota zen eta nik, bakarrik, aurkeztu nuen proiektua. Horretarako aurreko enpresaren eredua jarraitu nuelarik"*

**TOKI-ONA**
**Bodegoia-Taberna**
Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak
Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

**ETXAGI**
**Jatetxea**
Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

**AGOITZ**
**Tapizdenda**
San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58
BERGARA

adierazi digu Gallastegik. Gas Lan enpresa lehen EEk zuen lokalean dago eta proiektua aurkeztu baino urtebete lehenago alokatua zuen.

**Programaren kontraesana**

Horrek enpresaren gastuak gehitu egiten ditu eta Gallastegik dioenez ez horrek bakarrik *"Arrisku Soldataren programa ondo dago, baina zergak, tasak etab.ek asko garestitzen dute enpresa. Hor kontraesan bat aurkitzen dut. Udalak 6 hilabetetan, hileroko soldata ordaindu eta aholkularitza enpresa baten laguntza eskaintzen dit, baina bukatu ondoren Udalari lokala zabaltzeko baimena eskatu behar diozu eta hor diru asko joaten da".*

Udalak soldata ordaintzen du eta horrezaz gain, aholkularitza enpresa baten laguntza eskaintzen du lau hilabetetan eta hori garrantzitsua da Gallastegirentzat *"eurek merkatua nola dagoen jakiteko laguntza asko eskaintzen dute. Eurei esker asko ikasi dut".*

Enpresari gazte eta berria dugu Gallastegi, baina ez da bulegoan bakarrik egoten *"egun osoan zehar obran lanean aritzen naiz eta etxera 8'30-ak inguruan heltzen naiz eta ez daukat gogo eta asti gehiegirik papeleo guztia egiteko, baina hori egiteko neskalagunaren laguntza izaten dut".*

Gas Lanen haserako asmoa gas instalakuntzak egitearena zen, dena den, orain berogailu eta iturkintza lanetan hasteko asmoa dute. Baina horretara heltzeko haseran bazuen Gallastegik beldurrik: *"nahiz eta Arrisku Soldateren bitartez laguntza izan diru aldetik arriskatu beharra dago. Ni programa egiten ari nintzen bitartean, enpresaren zerbitzuak hainbat pertsonari eskaintzen hasi nintzen. Bestela oso zaila da programarekin bukatu eta lanean hastea".*

Gas Lanen laister beteko du urtebete eta krisia igarri arren, Gallastegi pozik dago hartutako erabakiarekin: *"urtebete pasa da eta enpresa, lan askorekin bada ere, aurrera doa eta oraindik Aholkularitza enpresaren laguntza dut".*

**Deba bailaran turismoa lantzen**

Turlan, turismoarekin zerikusia duten gauzekin aritzen den enpresa pasa den ekainean hasi zen lanean. Bertan, nahiz eta Bergarako Udalaren laguntza jaso, Arrasate eta Oñatiko 5 neska ari dira lanean. Turlanek Oñatiko turismo bulegoa, bisita gidatuak, Bergarako erakusketak, Ecuadorreko komisionistak eta Kongresuak antolatzen dituzte.

Edurne Oñatiarrak adierazi digunez enpresa nahiko ondo dabil *"orain batez ere Oñatin ari gara lanean, neguan eskolekin eta udan talde eta partikularrekin. Dagoeneko 3 kongresu antolatu ditugu".*

Turlan sortu baino lehen Oñatin turismoari buruz antolatutako ikastaro batean ibili ziren eta hortik sortu zen Arrisku Soldatara aurkezteko asmoa. *"Udalak aurkeztutako proiektua onartu zigun eta orain nahiko ondo ari gara. Dena den etorkizunerako gure zerbitzuak Deba Garaira zabaltzeko asmoa dugu".*

## "Aukeraketan idearen biabilitatea, merkatuaren azterketa etab., hartzen ditugu kontutan"

**MARIJE UNAMUNO**
**Udaleko Enplegu Dinamizatzailea**



aneZKa
Udazkenerako oihalak eta lenzeria
Espolola 8, Tfnoa: 76 59 25

MUGICA
Goxotegia
pastelak, errellenoak, tostoiak, tartak...
Artekale, 3
☎ 76 10 34

FERNANDEZ
Oihal puskak
Oihalak
San Antonio 3 Tfnoa: 76 22 93
Ibargaral 2 Tfnoa: 76 53 22

# Juan Mari GARITANO eta Kontxi IRIZAR (EA):

## *"Oso mugatuta gaude gauzak egiteko, Gobernu Batzordearen eritzia nagusitzen da beti"*

**Udalean ordezkaturik dauden lau alderdietako ordezkarien elkarrizketekin jarraituz, Juan Mari Garitano eta Kontxi Irizar Eusko Alkartasunako ordezkarien txanda da aste honetan. Hurrengo astean Jose Luis Elkoro (HB) ekarriko dugu orrialde hauetara eta 1993eko azken alean Victoriano Gallastegi alkateak (EAJ) elkarrizketei amaiera emango die.**



Kontxi Irizar eta Juan Mari Garitano EAren ordezkariak dira Udaletxean.

**- Zein da EAren betebeharra Udaletxean?**

- Danok dakizuen bezala oposizioan gaude eta Udaletxearen gestioa kontrolatzeko eskubidea besterik ez daukagu. Funtzio kritikoa? Kritikoa eta praktikoa. Uste dugunean gauza bat aurrera atera behar dela, aurrera ateratzen dugu. Herriaren alde badoa, sekula ez dugu esaten ezezkorik. gaizki baldin badago edo ez badira betetzen legezko oinarri batzuk orduan azaltzen dugu geure desadostasuna. Baina beti herriaren alde.

**- Botoa ematera mugatzen zarete?**

- Bueno, guk ez dugu asko "pintatzen" Udaletxean. Gure proposamenak ez dira kontutan edukitzen gehienetan. Kensingtonen kasuan [Bidekurutzeta 27ko lokala erosi zuen Udalak Euskaltegirako] ere gure ezeztzuk gure proposamena beste bat zelako. Oso mugatuta gaude gauzak egiteko, ez dugu esparrurik eta azkenean Gobernu Batzordearen eritzia nagusitzen da beti. Ikusten

*"Oposizioan gaude eta Udaletxearen gestioa kontrolatzeko eskubidea besterik ez daukagu"*

koa esan genion alkateari, ez sartzeko hor hankasartzea izango zelako eta hala izan da. Zalantzan jarri ditugu gai baduzue Plenotan gauzak zelan gertatzen diren. Komisioetan ere erantzun berdina daukagu, komisioak direla informatzeko, ez dezisiorik hartzeko. Orduan gure lana informazioa jaso eta gure eritziak mahai gainean jartzea litzateke.

**- Alkateak komisioetara ez zaretela joaten esaten du Plenotan...**

- Onartzen dut hori baina nik alkate jaunari esango nioke berak izan behar lukeela lehenengoa komisio danetara joaten. Bera ez da joaten bere komisioetara, hori esan behar zaio. Gu? Ahal dugun tokietara joaten gara. Bi gara bakarrik eta ezin dugu diren hamar bat komisioetara joan. Egun etan ordu berean bi egon daitezke. Zentzu horretan eskabide bat egin genuen bere sasoian, komisioe-

tara ordezko batzuk bidali ahal izateko. Hori zeharo mugatu zuten eta orduan gure eskubideak oso motzak dira. Ezin dugu ordezkorik bidali.

**- Gobernu Batzordearen asmoa EA baztertzea dela uste duzue?**

- Historia egiten badugu, nik gogoratzen dut Victorianok gobernua osatu zuenean, guri deitu zigula gobernu horretan parte hartzeko. Pleno batean hasieran planteatutakoa ez zuela bete esan genion. Berak zer nahi nuen galdetu zidan eta nik "ba alkate izan" erantzun nion. Jendeak barre egiten zuen eta egia esan propuesta horren erantzunik ez dugu jaso. Udaletxea, Diputazioaren... kasuak hor daude; EAJren asmoa hori da, EA baztertzea. Kalean ere tentsioa nabaritzen da; EAJkoek begi txarrekin ikusten gaituzte.

### Alderdiekin harremana

**- Ze harreman duzue EAJrekin?**

- Harreman pertsonal onak dauzkagu, politikoki ez genuke harreman txarrik eduki behar. Gu irekita gaude danekin. Batek esango dit, "HBkin be bai?" Nik uste dut hitz egiteko baietz, orain politika mailan lan egiteko ez. Geure estatutuetan oso garbi daukagu lehenengoko puntuan: biolentzia errefusatzen duten alderdi demokrata guztiekin. Hori argi daukagu eta gure aktuazioa oso garbia izan da.

**- Udaletxean HBtik ala EAJrengadik zaudete hurbilago?**

- Gauza askotan EAJtik eta beste askotan HBtik.



Garitanoren ustez, "oposizioaren eritzia ez da kontutan hartzen"

Nik uste dut hor lojika bat dagoela. Gure politika sozial mailara bideratzen da eta HBk hor bastante jokatzen du. Baina beste askotan ez gaude HBrekin ados ezta inondik ere. Detaile bat dago: HBrekin gaude oposizioan baina sekula ez dugu Pleno bat gertatu beraiekin, oposizio erlazio hori daukagu. Bestalde, EAJrekin gauza askotan ados gaude, beste batzutan ez, adibidez Udaletxean zelan eramaten diren gauza batzuk; dana itxita, oso mugatuta, EAJk eta PSOEk esaten dutena betetzen da eta besteon eritzia ez da kontutan hartzen.

**- HBrekin gobernatzetik HBtik urruntzera pasatu zarete...**

- Urruntze hori argia da. Zenbait puntutan akordio batera iristeko aukera izan dugu baina tentaziorik ere ez da eman. Ez da oposizio elkartu bat eta oposizio elkartu batek hobeto egin dezake lan. Askotan kointziditukо dugu, puntu konkretu batzuk tratatzerakoan ezin ditzakezu begiak itxi. Dena den, lehenengo herriaren problematika dago, herriko arazoak eta gero politika dago, udalaren politika. Azken hau kuestionatzen dugu.

**"EAJren asmoa EA baztertzea da, bai Udaletxetan eta bai Diputazioan"**

**- Alderdiek orokorrean markatzen duten bidea udal politikan erreflejatzen al da?**

- Ez. EAn askatasun osoa dugu. Kongresuan hainbat jarrera markatzen ditugu politika global bati begira baina udal politikan askatasuna dago. Herri bakoitzak bere problematika du eta herri askotan problema bera suertatzen bada (Autobia eta N-1 ren kasuan adibidez) EAko alderdikideek ikuspuntu ezberdina izan dezakete, baina koordinatu egiten da. Ez digute inoiz ezer markatu, eskuak libre ditugu.

**- Zergatik eman zenieten ezetza arau subsidiarioei? Oposizioan zaudetelako, beste proiektu egokiago bat duzuelako edota Plenoan ziren Frontoiko bizilagunen aurrean ondo gelditzearren?**

- Igual % 80an ados gaude arauekin, baina ez gaude ados arrazoi bategatik; norma hauek egin dira teknikoaren eskuetan lagata. Eta herritarrok gara Bergararekin zer nahi dugun erabaki behar dugunak: zer nahi dugun Bergarako herria. Halako estudiorik ez da egin eta hori aldarrikatzen dugu geuk. Estudio bat integrala Bergara mailan. Galdetu jendearen nahiak, eritziak jaso, ze mugimendu dauden. Eta konkursoa atera eta konkurso horretan egongo liratekeen planteamendu ezberdinetatik herriari gehien komeni zaiona aukeratu. Oraingo normetan azkenean interes ekonomikoak daude atzean eta ez herritarren interesak.

**- Zeintzuk dira inte-**



Irizarren ustez, bere alderdia gauzak egiteko mugatuta dago.

**res horiek?**

- Orain daukagun planarekin lau toki beteko dira etxeeekin, herritarrok gero eta beherago goaz eta orduan leku marjinalak sortuko dira. Ez gaude ados ezta udal terrenoetan eraikitzearekin. Erreserba bezala uzteko eskakizuna egin dugu, atzetik datozen gazteek zerbait beharko dute. Guretako oso garrantzizkoa da errekaren desbideraketa Algodonera parean, terreno asko errekuperatzen dira kostu txikiarekin eta Algodonerako egoerari irtenbide bat ematen zaio. Zubiaurre eta Altos Hornos herri barruan sartzea bezala izango litzateke, aktuazioak egiteko terrenua egongo litzateke: subentzionatutako etxeak adibidez. 10 milioiko etxebizitzak behar ditugu, ez 30 milioikoak. Eta gaizki iruditzen zaigu baita Frontoiko etxeak ordenazioz kanpo uztea, herritar batzuei kalte egitea besteen onerako. Gaur negoziatuko balitz ados, baina hemendik 15 urtera negoziatzen bada ez nago ados. San Antonio, Fraiskozuri eta Zubietakoei, guztiei, tratamendu bera eman behar zaie.

### Udal terrenuak

**- Gaizki ikusten duzue terrenu munizipaletan eraikitzea. Nahiko terrenu eraikigarria dagoela uste al duzue? Neurri egokia da terrenuak "kentzea"?**

- Bai, baina gauza bat da dekretuz kentzea eta eskubide batzuk izatea edifikatzeko. Pertsona batzuk Udalak emandako eskubide batzuk dituzte eraikitzeko baina lege dekretuz ez dute eraiki bere momentuan eta orain ezin zaie eskubide hori ukatu. Beste batzuk eskubideak izan dituztenean edifikatzeko baldintza egokitan lan egiteko aukera izan dute.

**- Udal teknikariek interes ekonomikoen alde jokatu dute?**

- Ez ginateke hori esatera ausartuko. Hori asko esatea da eta hortarako datu kontrastatuak eduki beharko genituzke. Eraikitzeko eskubideak galtzen dituztenak eta ordenazioz kanpo geratzen direnak galtzen ez ateratzea eskatzen dugu. Guztiok gara bergararrak, eraiki eta erosten dugunok eta bakoitzak bere eskubide eta betebeharrak ditu. Arau subsidiarioek eraikitzeko bolumenaren kapazitatea murrizten dute. Ibargarai potentziatzearen aldeko jarrera dago, eta espazio guzti hori betez ez da espazio librerik uzten. Era berean, bideak oso gaizki daude. Bolu bezalako auzo bat karretera batekin hipotekatuta ezin da egon. Blokeatuta geratu gaitezke edozein momentutan, Mintegi kalean beste horrenbeste...

**"Merkatuaren proiektuari garajeekin eman genion onarpena baina EAJk ez du horretarako borondaterik izan"**

**- Merkatuari buruz ze eritzi duzue?**

- Oso luzea da gai hori. Bolinaga alkate zegoenetik datorren gaia da, EAJk eskatu zuen proiektua, proiektua egin zen eta Elkoro alkate zegonean onartu ( gu gobernuan ginela). Gure kontzejalak biabilidade azterketa egin zuen, eta MERCASAk zerbitzuak garaje batzuk behar zituela gomendatu zuen, batzuk saltzeko eta besteak merkaturako. Eta aparkaleku gehiago egin ondoko lautadan. Proiektua tramitatzerakoann haunditu egin zen ordenazioz kanpo zegoen partzela batera arte. Orduan Bolinagak Elkorori esan zion permiso barik aurrera joaten bazen inpugnatu egingo zuela eta horren ondorioz bi urtetan atzeratu zen. Gobernutik irten ginen eta proiektua adjudikatu zenean gure baietza eman genion. Victoriano sartzean gauza guztiz aldatu egin da, lehenengo Plenoan enteratzen gara ez daudela garajerik eta ez plataformarik. Elkorok uste zuen garajeekin egin zuela proiektua eta bertan ez zen garajerik agertzen. Eta EAJk merkatuaren garestitzea probokatu du, ez du garajeak egiteko borondaterik izan...

**- Alkateak HBri leporatzen dio merkatuaren proiektua...**

- Ez, ez eurak jeneratu dute arazoa. Merkatua aurreikusita zegoen lekuan dago, 90an izango bagenuke, martxan egongo zen. Baina orain kosteak gora egin du, inork ez du nahi joaterik eta konpon-

bidea nekeza da.

**- Komunikazio falta egon al zen HB eta EAren artean garajerik ez zeukan proiektu bat aprobatzeko?**

- Beti garajeekin apoiatu dugu. Ez dut uste komunikazio falta egon denik. Elkorok beharbada ez zuen ezagutzen Arkitektuen Kolejioan sartzen ari ziren proiektua. Gertatzen da ez dakigula nork erabaki zuen hor garajerik ez joatea. Udal arkitektuak uste dut hori jakin beharko lukeela.

**- Eta orain negoziatzen ari den postuen prezioa egokia al da?.**

- Urjentziazko entrebista batean Victorianokin, merkatuaren irtenbidea komentatzen jardun genuen. Berari 6 milioi ateratzen zitzaion, guk partida bat ez zela kontatzen esan genion (merkatu zaharraren salmenta), hori kontutan hartu behar zuela bestea bajatzeko, gutxigorabeherako balore bat eman zitzaion eta horrela 4 milioira iritsi ginen. Ez zaigu ondo iruditzen, eta garajeak baleude merkeago aterako litzateke.

## Gaztetxea

**- Gaztetxearen gaiari buruz zer eritzi du EAk?**

- Udalak ez luke gai hori albora utzi behar. Gazteriak lokal bat erreibindikatzen duenean, Udalak arazoa kontutan izan behar du. Baina gazteriari ere gauzak ez direla anarkiaz egiten esan behar zaio. Dena den, bi aldeek (jabeak eta gazteria) galdu dutela uste dut. Nekeza da entendimentu batera heltzea eta gazteak kontziente izan hehar dute ingurua errespetatu behar dela, erreflesionatu egin behar dute. Guztiak izan gara gazte, erreibindikatiboak, eta erreibindikatiboa ez den gaztea... Baina gazteria arazo guztietan inplikatu beharko litzateke. Sektore bat mugitzen da eta sektore horri irtenbide bat eman zitzaion Udalatxetik [orain Taun-Taunek duen lokala eskeini zitzaion] eta ezetz esan zuen. Azken batean, bakoitzak nahi duena egiten du. Eta horrela nekeza da hitzegitea. Anarkiatik ezin da aurrera egin. Neurri batzuk jarri behar dira eta gazteek bere erantzunkizuna izan. Guztiok dakigu zer gertatu den oraingo Gaztetxean.

**- Langabeziaren kasuan Udalak gehiago inplikatu beharko litzateke?**

- Udala ez da enpresak sortzeko makina bat, administratzeko baizik. Ezinezkoa da lana sortzea. Udalak egin dezakeena da jendea orientatzea, erreziklatzea... eta hori egiten da. Edota industrialdea indartu. Guk altos Hornoseko pabiloi zaharren aldeko apostua egiten genuen. Victorianori proiektu hori baztertuta dagoela esaten diogu behin eta berriz. Udala eta propietarioak akordio batera iritsi dira, baina Udalaren errua da horrek aurrera ez egitea. Zeharo atzeratuta dago. SPRIk ere oneritzia emanda dauka.

**- Maltzaga-Urbinaren gaiari buruz EAk ikuspuntu ezberdina al du inplikatuta dauden herrietan? Leizarango autobiarekin bezala konfliktoa sor daiteke?**

- EAtík ikuspuntu argia



"Bergararrek erabakiko dute gora egiten dugun ala ez"

## "Ezin daitezke N-1a eta autobia kontrajarri. Biak dira beharrezkoak"

daukagu errepideei buruz. ezin dezakegu errepide bat indartu bestearen kalterako, ezin ditzakegu N-1a eta autobia kontrajarri. Biak joan behar dira. Deba bailarako autobia ezinbestekoa da eta dirua badago (hor dago Guggenheim museoaren kasua). Horrelako komunikazioak egiten ez badira, ez dator inor. Eta zentzuzkoak bagara ez da konfliktorik egongo. Udalatxeko obren aurka gaude horregatik, generatzen duen zerbaitetan inbertitu behar delako.

Merkatu zaharra saltzea hankasartzea izan zen, bergararron ondarea delako. Edifizio modernoa egin zezaketen bertan. Ondorioak ordaintzen ari gara.

**- Bukatzeko, hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko zarete al honezgero desanimaturik zaudete?**

- Desanimaturik ez. Gure lana ez da kalera irtetzen, eta herritarrek interes gutxi azaltzen dute. Medioek zerbait gehiago egin dezakezuen ez dakit, debatea sortu eta guztion artean erabakitzeko. Dena den, zintzo lan egiten duen alderdi bakarra gara eta bergararrek erabakiko dute gora egiten dugun ala ez. Horren alde lan egiten dugu eta igo egin dugula uste dut. Aurrekoetan ere 20 botoengatik ez genuen 3 kontzejala lortu.

FS Foto Sistema
Albéniz

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

✔ Diapositiba errebelatzeak.
✔ Karneterako argazkiak momentuan.
✔ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
✔ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

ARREGUI, E.M.

AROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

KIZKUR
Ileapaindegia
Solariuma
Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

SURPE
Taberna
Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

## Aurtengo Gabonetan kalea apaintzeko diru gutxiago gastatzeari buruz zer diozu?



**Mikel Garitano**
**21 urte, langabetua**

Ondo dago horretara diru gutxiago bideratzea, beste premia batzuk badaudela uste dut eta.



**Pilar Ballesteros**
**26 urte, langilea**

Iaz gehiegizko gastua iruditu zitzaidan, diru hori beste gauza batzutan gastatu daiteke.



**Mari Gonzalez**
**33 urte, etxekoandrea**

Udaletxeko obrekin diru gehiegi gastatu da eta Gabonetan diru gehiago gastatu beharko litzateke.



**Joseba Prat**
**33 urte, langabetua**

Gabonetan kalean hainbeste argi ipintzeak ez du merezi, gutxiago gastatzea ondo iruditzen zait.



POL - POL TABERNA
Tfnoa: 76 07 78

DEPORTIVO TABERNA
Tfnoa: 76 01 51



## Testamentua

Testamentuari buruz hitzegiteak beldur edo errespeto pixka bat sortzen digu.

Zer da testamentua? Pertsona batek hil ondorako bere ondasunen helmuga erabakitzeko egiten duen ekintza.

Testamentua finkatzea oso erraza dugu; nahikoa da Notaritzara joatea eta gainera ez dirudi garestia denik. Bestalde, aldatu dezakegun ekintza dela azpimarratu behar.

Zer egin behar da testamenturik ez dagoenean? Testamentugabeko oinordetza irekiko da eta hildakoaren oinordekoak bere senitartekoak eta alarguna izango dira, legez ezarrita dagoen hurrenkeran. Lehen Epaitegietara joan beharra zegoen, gaur, berriz, kasu batzuetan Notaritzan egitea posible da.

Dena den, testamentuaren lekua beteko duen tramitea burutzea ohizko testamentua egitea baino askoz ere garestiago izango da. Bestalde, legeak ezartzen dituen arauak betetzera beharturik izango gara; testamentuan, berriz, norberak bere azken borondatearen berri libreki erabaki dezake.

Honek ez du esan nahi, guk nahi duguna egiteko aukera izango dugunik; kasu honetan ere legeak eskatzen dituen oinarrizko baldintzak (semeek betidanik izango dute aukera...) bete beharko ditugu baina gure asmo edo borondateak dexenteko islada izango du. Aipatutakoaren arabera, konplexuak albora utzirik, eta ondasunak tarteko direnean, merezi du Notaritzara joan eta testamentua egiteak.

**Amaia Zabaleta**



## Zaparrada

EGIN egunkaria jasaten ari den zaparrada eta erasoaren barruan, neurriz kanpoko miaketa bat izan du Estatu frantsesean atxilotutako euskal borrokalari bati topatutako paper batzuen aitzakiaz (aitzakia dela denborak demostratuko du). Aitzakia horrekin, Ertzantza, etxeko jaun eta jabe balitz bezala, Eginen sartu eta komeni zitzaien paper eta informe guztiak eraman zituzten. Incresa enpresak egindako informeak zirela eta eman zuen Bueren epaileak Egineko zenbait bulego arakatzeko baimena, baina enpresa horretako informerik gordetzen ez zuten hainbat karpeta eraman zituzten.

Ez dago zalantzarik. Min eman dute Eginen atera diren informazio batzuek (benetakoak: epaitegietan izan diren kasuek arrazoia eman diote Egini). Gobernuko alderdiak arduratzen dira diru publikoa banatzeaz eta dituzten influentziei esker jende asko aberasten ari da, negozio zikinak eginez gainera. Hori salatu dute batez ere azken urtean, Pepe Rei eta inbestigazio saileko kazetariek. Bereziki PNV-ren inguruko zenbait pertsonen "txantxulloen" berri eman da. Itxi egin nahi da sistemak domestikatu ezin duen medioa delako. Herriko eskaerez informatu eta agintarien joku ilunak salatzen dituelako. Asteazkeneko miaketarekin inbestigazio sailarekin amaitu nahi izan da. Ez dira enpresa batek konfidentzialki Eginentzat egindako informeak bilatu baizik eta, beste gauza batzuen artean, PNVko zenbait kideren kontu ilunei buruzko informazioa, ustelkeria kasu ezberdinei buruzko informe eta testimonioak, eta droga trafikoan aritzen direnei buruzko paperak dira. Zertarako eraman dituzte? Denboraz abisua pasatzeko aukera izango dute.

**Jon Altuna**

LIZAR
Altzariak
Dr. fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

Mujika
Jantzidenda
Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

BOLINTXO
Kirola egiteko behar den guztia
Ibargarai 10,
☎ 76 38 32

HIRU BIDE
BAZKARIAK, AFARIAK, EGUNEKO MENUAK.
Jatetxea benta
Urteaga 9 ☎ 76 18 45

Gaspar
Jatetxea, Txokolategia, Self Service-a
Barrenkale 31 Tfnoa: 76 20 02 BERGARA

Mari Carmen
ARRAINDEGIA
Arrain freskoak, izoztuak eta mariskoak
Kruz Gallastegi
☎ 76 15 90 / 76 40 73

NAHIKARI
Taberna
ARGAZKI ERAKUSKETA
Daniel Santos
Masterreka, 20 BERGARA ☎ 76 57 71

BERGARA
Karrozeria
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Aranzabal
OIHALAK
Zubieta, 32 ☎ 76 11 50



## ❑ Hori da hori hamaiketakoa!!

Urtero bezala, **Lasai-Toki** elkarteak luncha eskeini zien herriko jubilatuei asteazkenean, **Ama Birjina** eguna. 200 jubilatu inguru hurbildu omen ziren goiz osoan zehar bertara, eta jubilatuek hamaiketako ona egiteko aukera izan zuten. Lasai-Tokik bere sukaldarien maila ona erakutsi zuen eta jubilatuak pozik, aurten ere beraiekin izandako deitaile horrengatik. Txalotzekoa benetan.



Beheko argazkian agertzen diren Lasai-Toki elkarteko sukaldariek sekulako luntxa prestatu omen zien jubilatuei.

LASA
JATETXEA
Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29



## ❑ Huajoloteekin juerga

**A**stelehenean potro hestu, ai barkatu!!, **Kojon Prieto** eta **Huajolote** petral xamarrak herrian izan genituen. Ez dakigu Gaztetxekoek antolatu zuten herri bazkaria alaitzeko ala tabernarik-taberna mozkor-mozkor eginda ibiltzeko hurbildu zitzazkigun. Kontua da bai eurak (batez ere) eta baita bazkarira joan eta kalean aritu zirenak primeran igaro zutela eguna. Zubian inora irtetzeko aukerarik ez izan eta etxean **Código uno** ikusten geratu beharra suplizio ederra bada eta... Ze demontre, jarri sonbreroa eta mexikanadak dantzatzera.



## ❑ Bigotedunen kongresua

**E**dozein motatako aitzakia ona omen da lagun artean mahaiaren inguruan biltzeko. Kinto bazkariak, despedidak, urtebetetze afariak... guztiak balio dute, eta batzuk besteak baino originalagoak izaten dira gainera. Orain dela bi aste, **40 bat lagun** elkartu ziren **Tartufo** dantzalekuan eta guztiek zuten zeozer amankomunean: denak bigotedunak. Baziren Pantxo Villarenak modukoak zituztenak; beste batzuk, ordea, Hitlerren antzekoak; polizia edota guardiazibil antza hartu genien beste askori eta Bolivian hain ospetsua egin den Xabier Azkargorta, "bigotones", ere imitatzen zuen baten batek...

## *Zertan dihardute ba?*

### IKER MURUAMENDIARAZ




**1**6 urteko pelotaria, azken asteetan jokatu den kluben arteko banakako pelota txapelketako jubenil mailako Gipuzkoako Txapelduna dugu. Larunbatean Zarautzen jaso zuen saria.

### MARTIN GARMENDIA



**2**9 urte, albaitaria, Estatu Batuetako Itaacako Unibertsitatean (New Yorkeko estatuan) bi hilabete eman ditu laborategiko praktikak egiten. Abereen txertoak aztertzen aritu da.

LARRAÑAGA eta ZUBIA
**Banatzaileak**
Errioxako ardoak, olioa, esnea, lejiak...
Martokua 32, tfnoa: 764594

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

LARREA
TABERNA
Kale Barren 17
ANTZUOLA

# Umore giroan

### Bai Ermuruntz

Egun baten, juan da "Balbotin" ugazabangana. Auxe eskabide au eitxen zetsan: jornala altxatzeko. Ugazabak orduan:
- Baiña, ez hago konforme irabazten duanakin? ALFAtik urrengo geu gaitxuk barren!!
- Balbotinek zoli-zoli:
- Bai, Ermuruntz.

### Mototxenian

Kaporala ta bere lagun juan dira Mototxenera. Edan dabez bi bermut eta juan dira kalera ordaindu barik. Mototxek, ikusitxa orduan be sartu zetsela zirixa, diño:
- Ez ba! gaur pagau biarko juek!
Ordubi terdietan ba datoz barriz bi lagunok eta eskatzen dabe bi txikito.
Mototxek:
- Lenengotik lengua pagau!
Kaporalak:
- Ara ba, konfundidu ei aiz. Guk, oiñ, etxakau dirurik. Len bai.

*Pedro Zelaia*

# ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Hika antzerki taldeok "Chaplin tropela" eskeini zuen 1990an Mariaren Lagundian.

## Hiru bergararren antzerki-lana Dominikoetan

Pozgarria da gazteek, beren astialdian literatura, antzerki eta arte lanetan jardutea. Eugenio Etxeberria, Maximo Gomez eta Jose Luis Egües gazteek ere bide horri ekin diote eta beren bigarren antzerki-lana eskainiko dute bihar larunbata Dominikoetako areto nagusian. Bi emanaldi izango dira: 7.30etan lehena eta 10.30etan bigarrena.

Aurrekoan, "La postguerra" agertu zutenean, ikaragarrizko arrakasta lortu zuten bergarar gazteok eta uste izatekoa da bihar ere jende asko joango dela hirukote honen lana txalotzera.

Antzerki-lanaren zuzendaria Aita Jose Etxeberria izango da eta berak zuzenduko ditu argiak eta soinua ere.

**La Voz de España.**
**1968, abenduak 13.**

**Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak hemerotekatik bildutako notiziak**


EDURNE
Merzeria - Lenzeria
D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

GAZTELU
Burdinaki denda
Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Zatoia
Boutique
BARRENKALE 4 Tlfnoa: 76 18 14


ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

# BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezibar



## IZASKUN GONZALEZ

**IZASKUN GONZALEZ**ek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko argazkian agertzen zen Donostiako Frantzia pasealekuko etxean agertzen ziren esaldiak, **Bergarako Udaletxean** irakur daitezke. Horixe zen erantzun zuzena eta **IZASKUN**ek eskuratu ditu asmatzaileen artean zozketatutako **10.000** pezetak. ZORIONAK **IZASKUN**i eta besteok aukera berri bat duzue aste honetako BONOFOTOArekin. Suerte!!

*Zein da elkarte honen izena?*

______________________________

**Izena:** ____________ **Abizena:** ______________ **Tfnoa:** __________

***Saria:***
***10.000 Pzta.***

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

***BERRIGARA***
***Errotalde Jauregia Bergara***

Erlojutegia
iRUDi
Bitxitegia

OIHAL PUSKAK
FERNANDEZ
OIHALAK

Zubizarreta

YAZKI
gazte

MACAVI
Jean Louis David

LURRINDEGIA
Valga

TXAN

BOLINTXO
KIROLAK

LAGUN ARO
RAC

7 MARES
IZOZKIAK

Flores Ninika

M2
ERROTULOAK

Prontaprint!
INPRIMATEGIA

IZADI
Santiveri

Urcelay
HARATEGIA

J. Larrañaga
MULTIOPTICAS

ZORIONAK

HALCON
BIDAIAK

## IBARGARAI ALDEKO Merkatarien Elkartea BERGARA

**TENERIFERAKO BIDAIA,**
**bi lagunentzakoa,**
**zozketatuko dugu**
**gure bezeroen artean.**
**Zozketa 1994ko urtarrilaren**
**10ean egingo da**

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

*CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak*

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Haurnaldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamentua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU ARRASATEN BERTAN, URRUTIRAGO JOAN GABE!!**



Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

## Kirol Argazki Lehiaketako sariak

Joan zen larunbatean eman ziren ezagutzera III. Kirol Argazkien Lehiaketako irabazleen izenak. Oraingoan ere, bergararrek hainbat sari jaso dituzte. Zuribeltzean, Benito Canterok hirugarren saria jaso du "Waterpolo II" argazkiagatik eta herriko argazki onenaren saria, Dani Santosen "Rugby" izenekoak. Koloretan, Dani Santosen "Rìtmica I" argazkiak eraman du bigarren saria eta Hilario Azkargortaren "Marathon"-ek hirugarrena. Herriko onenarena, azkenik, Juan Tabaresen "Moto Cross" argazkiak.

# Udalak kirol taldeei banatzen dizkien diru-laguntzak ezagutzera eman dira

Udal Kirol Zerbitzuak eta herriko kirol elkarteetako ordezkariek ostegunean izandako bileran eman ziren ezagutzera Udalak kirol taldeei aurten banatuko dizkien dirulaguntzak (7 milioi pzta.tik gora).

Aldameneko koadroan ikus ditzakezue kopuruak. Argi utzi nahi dugu, hala ere, Kirol Zerbitzuak utzi dizkigun datu horiek behin-behinekoak direla. Kirol taldeek aurkeztutako txostenetan oinarrituta banatu dira diruak eta Atletiko Zaleakek eta Xake Elkarteak ez dituzte oraindik txostenak aurkeztu eta ahoz emandako datuetan oinarrituta daude eman zaizkien diruak.

Aurten arautegi berria jarri du indarrean Udalak diruak banatzeko orduan. Horren arabera, bi talde bereizten dira: Lehen taldean, ohizko iharduerengatik jasotzen diren diruak sartzen dira. Hemen, diruaren % 80a, klub amateurren artean banatzen da (koadroan) eta % 20a, kirola egiteagatik diru kopururen bat irabazten dutenen artean (Aitor Zabaleta, Pablo Irizar, Egaña anaiak, Ion Lazkano Martin Arriaran eta Bergara K.E.ko preferente mailako futbol taldea. 1.600.000 pzta.). Bigarren taldean, ezohizko iharduerengatik jasotzen direnak sartzen dira (Txapelketaren bat edo, eta urtetik-urtera aldakorra dena).

| ELKARTEA | 1992 | 1993 |
|---|---|---|
| ATLETIKO ZALEAK | 288.000 pzta. | 270.000 pzta. |
| BADMINGTON | 99.000 pzta. | 158.000 pzta. |
| BETI-BUSTI | ...................... | 78.000 pzta. |
| BERGARA K.E. | 5.000.000 pzta. | 3.590.000 pzta. |
| IGERI ELKARTEA | 530.000 pzta. | 736.000 pzta. |
| KARATE ELKARTEA | 24.000 pzta. | 45.000 pzta. |
| LOKATZA | 204.000 pzta. | 486.000 pzta. |
| POL-POL | ...................... | 548.000 pzta. |
| GIMNASIA ERRITM. | 602.000 pzta. | 658.000 pzta. |
| XAKE TALDEA | 198.000 pzta. | 734.000 pzta. |
| BEHIN-BEINEKO DIRULAGUNTZAK | | |

# II. Boleibol txapelketa

Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta II. Boleibol Txapelketa jokatuko da Gabonetako oporretan Labegaraieta Kiroldegian. Hain zuzen ere, urtarrilaren 3tik 5era bitartean jokatuko da eta 14 urtetik gorakoek (gizonezko zein emakumezkoak) parte hartu al izango dute. Izena emateko orduan 500 pzta. ordaindu beharko du ekipo bakoitzak eta gehienez 10 jokalariz osatuta egon beharko da talde bakoitza (6 lagunek jokatzen dute). Partiduak 3 setetara jokatuko dira. Hiru lehenengoek jasoko dute saria. Txapeldunak, esate baterako, afari bat eta trofeoa eramango du.



Zure konfidantzako denda

LASAGABASTER

Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE



*Batxilergo Institutuko 2. mailako ikasleak, 1980.*

Ehundaka argazki utzi zituen **Imanol Iriagarai**k bera ibili zen toki guztietan: Angiozarren, Bergarako Institutuan, etab.etan. Karnabaletako mozorro dotoreak, eskolako jaiegunetako juergak, etab.ak berriz gogoratu nahi dituenari aukera ederra eskaintzen dio bilduma horrek.

Honako honetan 2. C gelako ikasleak ditugu, formazioan; batzuk umoretsu, beste batzuk serioago. A! eta ezetz asmatu nork jartzen dizkion adarrak.

Hona hemen bertan daudenen izenak, atzeko ilaratik hasita, ezkerretik eskumara:

**Lehen ilaran:** Esther Etxaniz, Ione Legorburu, Jaione Arana, Nerea Larrañaga, Alazne Irazabal, Ana Karmen Agirre, Marina Hernando, Amaia Madinabeitia, Elisabet Payros, Goretti Andrinua, Rosa Irizar eta Izaskun Gallastegi.

**Bigarren ilaran:** Xabier Berasategi, Jose Anjel Aperribai, Mikel Laskurain, Imanol Larrea, Hilario Manzanedo, Julen Iparragirre, Juan Inazio Etxaniz, Iñaki Arregi, Pello Andrinua, Josetxo Muniategi, Alex Labaien eta Enrike Elkoroberezibar.

**Hirugarren ilaran:** Irune Urbina, Judith Alzola, Arantzazu Larrañaga, Miren Uribesalgo, Elisabet Mendizabal, Maria Jose Juaristi, Blanki Anduaga, Maria Jesus Iturbe, Lierni Lasa, Anaje Aranzabal eta Iñigo Jauregi.

*Estepan Plazaola*

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea ☎ 76 59 54 BERGARA


JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

## ETXEBIZITZA

**Taberna** salgai Uberan. Prezio interesgarria. ☎ 76 25 99.

**Etxebizitza salgai** Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

**Pisua** hartuko nuke **alokairuan.** ☎ 79 83 50.

**Garajea** salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

**Pisua salgai** San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

**Pertsona bat** behar dugu **Deustun** pisua osatzeko ☎ 76 49 69.

**Pisu amueblatua** salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

**Etxea** salgai Katabian. ☎ 76 56 20 (gauez).

**Garajea** salgai Iparragirren. ☎ 76 28 52.

**Pisua alokatzen** da. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

**Bergaran pisua** betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

**Pisua** alokatzen da. ☎ 76 18 82.

**Garajea** salgai Sta. Marinan.☎ 76 43 89.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean.☎ 76 00 93.

**Etxea salgai** Masterrekan. ☎ 76 48 30.

**Pisua alokatzen** da. ☎ 76 46 15.

**Etxebizitza salgai** Martokon. Merkea eta berriztuta.☎ 76 00 93.

**Garajea salgai** Bolun. 1.000.000. ☎ 76 23 37.

**Etxebizitza** (Martoko 4an) eta **garajea** (Ibargarain) salgai. ☎ 76 00 93.

## DENETARIK

**Ortuan** lan egiteko makina erosiko nuke. ☎ 76 55 67.

**Citroen Visa** (SS-S) salgai. 50.000 pta. ☎ 764071.

**Ume kotxe** bat salgai. ☎ 76 02 00.

**Ford Taunus** 2.000 CL salgai. Egoera onean. ☎ 76 15 74.

**Bainu gelako** osagarriak salgai. Egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ 76 31 23/36 59.

**Nintendo** bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Ford Fiesta** 1.4 Sporta salgai. SS-X. Egoera eta prezio ezinhobean. ☎ 79 76 89 (Ion).

**Ebakigailu elektrikoa,** pisu elektrikoa eta erakustegi frigorifikoa salgai. ☎ 76 59 28/23 65.

**Seat 1.500** SS-94465 kotxea **salgai**. Egoera onean. ☎ 76 42 81.

**Gospel** talde bat osatzeko lagunak behar dira. ☎ 76 55 75 (Libe).

**R-18 diesel** (familiarra) eta **Ford Fiesta** salgai. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

**Gamix** kontsola (adaptadore eta jokuekin) salgai. 28.000.☎ 765028 (Iñaki).

**Renault 21** TXE bat **salgai.** 1988koa. Egoera onean. ☎ 76 38 68.

**Karabana bat salgai.** Ia berria. ☎ 77 04 98.

**Sega Megadrive** kontsola eta 4 joku salgai. ☎ 31 12 52.

## LANA

**OHO eta ingeles** (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Pertsona zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

**OHO, UBI, BBB eta LH** klaseak ematen ditut. ☎ 76 19 34 (Jon).

**Ordenagailuz** lanak pasatzen ditut. ☎ 79 77 59.

**Ingelesezko klaseak.** ☎ 76 31 36.

**OHO, REM** eta **LH** klaseak. ☎ 76 24 31.

**Dibujo teknikoko** (mekaniko, diedriko..) klaseak ematen ditut. ☎ 765516 (Jabier).

**Ordenagailuz** lanak pasatzen ditut. ☎ 76 05 43.

**Ingeles Filolojian** lizentziatuta, klaseak emango nituzke. ☎ 76 17 36.

Latin, Euskara eta Frantses **klaseak.** ☎ 76 02 99.

## Hildakoak

***Jose Luis Arenaza Lazkano***
abenduak 2, 55 urte
***Bernardo Alberdi Badiola***
abenduak 8, 55 urte

## Jaiotakoak

***Aste honetan ez da jaiotakoen berririk jaso Bergarako Epaitegian.***

**Aldoka Maldoka**
**TABERNA**
Kruz Gallastegi, BERGARA



**KOSMETOLOGIAN AUKERA ZEURE-ZEUREA EGIN EZAZU**
Larruazal osasuntsua baduzu gogoratu, zaindu eta hotzaren, tenperatura aldaketen, eguzkiaren eta abarren erasoei aurre egiteko une aproposa dela. Orain **"PREVENTION"**ekin larruazala bizi eta disdiratsu mantentzeko linea ezinhobea duzu. Eskaiguzu dohaineko mostra eta zuk zeuk frogatu.
**LILURA EDERTZE INSTITUTUAN** itxaroten zaitugu. Bidekurutzeta, 7. zka., lehena. 763171 telefonoa.



a, eme... interiores

a, eme...
interiores